Exekuzio proiektua
Proyecto ejecutivo

Oñatiko URGAIN-ERREKALDE herri eskola ikastetxearen kanpokaldeko jolasgunea eraberritzeko Exekuzio proiektua

OÑATI

I FASEA

Oñatiko URGAIN-ERREKALDE herri eskola ikastetxearen kanpokaldeko jolasgunea eraberritzeko Exekuzio proiektua

ANEXO I ERASKINA

MEMORIA
MEMORIA



Sustatzailea: Oñatiko UDALA

Egilea: LUR Paisajistak

Paisajistak: Iñigo Segurola Arregui – Jon Muñiz Elola
sarobe erreka bidea, 36b E-20180 oiartzun telf :943 492 938 lur@lurpaisajistak.com
EKAINA 2022

AURKIBIDEA

00. AURREKO FASEEKIKO ERREFERENTZIA

01. AURREKARIAK

01.1 PROIEKTUAREN ESLEITZEA

02. AURREPROIEKTUA

02.1 SARRERA

02.2 JOLASGUNE BERRITZAILE EREDUAK

02.3 JARDUERA ANITZEN BULTZATZAILE

02.4 JOLASGUNE BERRITZAILEA GAUZATZEA

02.5 JOLASGUNEAREN DISEINUA

03. EXEKUZIO PROIEKTUA

03.1 EGUNGO EGOERA ETA ANALISIA

03.2 DESKRIBAPEN OROKORRA

03.3 AZALERAK

03.4 TEKNIKA

04. AURREKONTUA

05. ERAIKUNTZA EPEAK

06. KONTRATAZIO KALIFIKAZIOAK

OÑATIKO URGAIN-ERREKALDE HERRI ESKOLA IKASTETXEAREN KANPOALDEKO JOLASGUNEA ERABERRITZEKO EXEKUZIO PROIEKTUA

00. AURREKO FASEEKIKO ERREFERENTZIA

Eskuarteko dokumentu hau, Oñatiko Ur Gain Errekalde herri eskola ikastetxearen kanpoaldeko jolasgunea eraberritzeko proiektu exekutiboaren lehen fasea da.

Dokumentu honetan, Oñatiko Ur Gain Errekalde herri eskola ikastetxearen kanpoaldeko jolasgunea eraberritzeko aurreproiektuan jasotako ideiak eta ordenazioa jasotzen dira, eta Oñatiko Udala da proiektu honen idazlanean sustatzailea.

01. AURREKARIAK

01.1 PROIEKTUAREN ESLEITZEA

2022 ko Martxoaren 30 ean egin zen, kontratu txiki moduan, eta Oñatiko Udalak **LUR Paisjistak S.L**. ri egin zion Ur Gain Errekalde ko herri eskolako kanpokaldeko jolasgunea eraberritzeko exekuzio proiektuaren esleipena.

02. AURREPROIEKTUA

02.1 SARRERA

Aurreproiektu honen xedea, Oñatiko Herri Eskolako, Urgain-Errekalde Ikastetxeko jolasgunea eraberritzeko Aurreproiektua garatzea da.

Herri Eskolak, ikasleen aisialdietan erabiltzen den jolasgune zabala du, baina izaera gogorreko eremua da. Azalera guztia asfaltaturik dago, eta bi futbol zelaiek eta saskibaloi zelai batek osatzen dute jolasguneko azalera gehiena.

Jolasguneko albo batean zelai maldatsu edo ezponda berde bat aurkitzen dugu.

Lur sail malkar honen zati bat, herri lurrak dira, hain zuzen, jolasguneko futbol zelaia baten hertza osatzen duen zatia.

Proiektu honen bultzatzaileak Eskolako Zuzendaritza eta Oñatiko Udala dira. Eskolako Zuzendaritzatik azalera gogorra murriztu, eta berdetze eta leuntzearen aldeko apustua egiteko nahia adierazi ziguten. Aldi berean, Oñatiko Udalak, eskoletako jolasgune apropos batek, ikasleekiko ekar ditzakeen onuren ezagutza du eta Oñatiko herri eskola pareko herri lurra maldatsua eskolako jolasgune berritzaile baten osagai izatearen aldeko apustua erakutsi du.

Eskolako Zuzendaritza eta Oñatiko Udala bat datoz jolasgunea eraberritzeko nahiarekin.

Herri Eskolako jolasgunea ez da soilik eskola publikoko gaztetxoen erabilerarako. Arratsaldez, klaseak bukatu ahala, eskolako ikasle zein auzoko gazte eta zaindariak jolasgunera bertaratzen dira eta bertako jolas baliabideak erabiltzen dituzte.

Beraz, udal lur saila eskolako jolasgunera loturik gelditzeaz gain, herri lur hau, herritar ororen erabilerarako prest egongo da behin klaseak bukatu eta eskolako kanpo atea ixten den bitartean.

Egun dagoen jolasgune eredua eraldatzeaz gain, aurreproiektu honetan beste hainbat arazori aurre egiteko proposamena lantzen da.

Euri uren bideratzea, hezetasun arazoari aurre egiteko. Jolasgunea eta alboko malkar arteko eremuan ur pilatzeak daude. Honek hezetasun arazoak sortzen ditu eta hauei aurre egiteko, jolasgunerako ereduak proposamenak ur bideratze egokia proposatzeaz gain, ur arazo hau baliabide bihurtzea du ardatz.

Jolasguneko argiteria. Jolasguneak ez du argitegirik eta honek eremu honen neguko erabilera mugatzen du.

Proposamen honetan jolasguneko argiteri proposamena lantzen da.

Bizikleta eta patin aparkalekuak.

Pandemia garaian zehar, eskolara bizikleta eta patinetan datozen gazteen kopurua nabarmen hazi da. Honek bai bizikleta zein patinak modu antolatu eta duin batean bideratzeko beharra sortu da.

Behar honi ere entzuten dio aurreproiektu honek eta beraz bai bizikleta zein patinen aparkaleku proposamena jasotzen du aurreproiektu honek.

02.2 JOLASGUNE BERRITZAILE EREDUAK

Eskolak duen jolasgunea, futbola eta saskibaloira jolasteko pentsatuak daude. Azalera zabal bat, zoru gogorduna, dena asfaltatua, porteria eta saskibaloiko kantxak, eta bi kirol nagusi hauetara jolasteko zelaietan egoten diren lur maka zuriak, ez dute beste ekimenetarako aukera handirik ematen.

Eskolako zuzendaritzatik azaldu digutenez, jolastorduetan, bi kirol nagusi hauetan onak diren mutilek protagonismo guztia jasotzen dute. Beraiek futbol edo saskibaloira jolasten duten bitartean eskolako gainerako gaztetxoek ez dituzte aukera handirik beste jolastean denbora pasatzeko. Beraz, kirol zelaian hertzetan gelditzen dira, kirolean onak direnak nola jolasten duten ikusten.

Jolasguneko asfaltatu azalera gordinak, futbol eta saskibaloirako baliabide hutsekin, futbola edo saskibaloira jolastea bultzatzen ditu soilik.

Eredu hau zaharkitua gelditu da, bertan jolaserako eskaintzen den eredua, “jerarkitzailea”, baztertzailea, diskriminatzailea (genero diskriminazioa) eta marjinatzailea delako.

Proposatzen den jolasgune eredu berritzailea ordea, integratzailea, berdintzailea, hierarki atomizatzailea (ez dago erdirik, ez bazterrik, guztiak maila berdinean), aniztasun bultzatzailea (genero parekotasuna) eta norberekotasunaren bultzatzailea da.

EREDU TRADIZIONALA
BAZTERTZAILEA
JERARKIZATZAILEA
JERARKIKOA (Talde nagusia erdian--- besteak bazterretan)
DISKRIMINATZAILEA (Genero diskriminazioa)
MARGINATZAILEA
EGONEAN EGON

EREDU BERRIA
INTEGRATZAILEA
BERDINTZAILEA
BERDINTASUNEAN OINARRITUTA
JERARKIA ATOMIZATZAILEA (Ez dago erdirik ez bazterrik guztiak maila berdinean)
ANIZTASUN BULTZATZAILEA
GENERO PAREKOTASUNA
NORBEREKOTASUNAREN BULTZATZAILE
EGONEAN HEZI ETA HAZI

Jolasgune berritzailea, jarduera anitzen bultzatzailea izan behar du. Eredu berri honen ekarpenak, atal hauek bideratu beharko ditu, beti ere espazio aniztasunean oinarriturik, hau da, ekintza, egonaldi eta jarduera asko eta ezberdin praktikatzeko lekua.

Ahal den neurrian berdea (zelai, soro, lur, harritxintxar, belar, pinu azal...) izan behar du espazio berriaren osagai nagusia.

Egun dagoen jolasgune ohikoa, asfaltozkoa hain zuzen, bi herenetara murriztuko da. Saskibaloi zelaia eta futbol zelaietako bat, ez dira eraldatuko. Azaleraren bat heren bat ordea, futbol zelaia izatetik espazio berde, erabilera anitzen bultzatzaile, bihurtuko da. Herri lurra den hertzeko ezponda berdea, jolasgune berritzailera txertatzen da.

Eskolako jolasgunea eta ezponda artean dagoen itxitura eraitsi eta esku berde baten moduan, natura eta eremu berdeak asfaltozko futbol zelaiaren azalera kolonizatuko du.

Futbol zelai asfaltatua eraldatzeko bidea, espazio ez hierarkizatzaile bat sortzen izan behar du. Honetarako zirkulua edo geometria biribila erabiltzeko apustua egin da. Tamaina ezberdin, baina pareko zirkulu berdeak sortzen dira. Modu honetan ez da gaztetxo talde nagusi baten protagonismoa indartuko duen espaziorik sortzen.

Aurkezten den ordenazio berri honek garbi betetzen ditu espazio ez hierarkizatzaile batek eskatzen dituen neurriak.

02.3 JARDUERA ANITZEN BULTZATZAILE

Jolasgune eredu berri honek jarduera anitzen bultzatzaile izan behar du, bertan eskola eta auzoko gaztetxoek SORTU, BILDU, PARTEKATU, IKASI, AURKITU, IKERTU, BUSTI, LOKAZTU, IRAULI, ETZAN, ABESTU, ANTZEZTU, DANTZATU, EZKUTATU, IRAKURRI eta ABAR luze bat lantzeko aukera izango dute.

INGURUMENAREKIKO HARREMAN JASANGARRIEN BULTZATZAILE

Berdeak ukaezineko garrantzia izango du espazio berrian eta honek inguramenarekiko harreman jasangarriak lantzen eta bultzatzen lagunduko du.

Berdeak, hau da naturak bere osotasunean, hainbat ekintza eta ikaskizun jasotzeko bidea zabaltzen du. Gaztetxoek, naturan ematen diren prozesu ekologiko askotarikoak, zuzen zuzenean ikasteko aukera izango dute. Prozesu ekologiko hauek ikasi, ulertu eta ikusteko lekua izango da jolasgune berria.

Naturan murgilduz, gazteek, naturaren baliabideekin hartu-emana bideratuko dute. Naturaren ikaskuntzak, natura ulertu eta errespetatzeko abiapuntua izango da eta nola ez guzi honek jarduera jasangarriak ikasi, landu eta ulertzeko bidea da.

-INGURUMENAREKIKO HARREMAN JASANGARRIEN BULTZATZAILE

- PROZESU EKOLOGIKO ASKOTARIKOAK ULERTU, IKASI ETA IKUSTEKO LEKUA
- NATURAREN BALIABIDEEKIN HARREMANA BIDERATU
- NATURA ERRESPETATU
- JARDUERA JASANGARRIAK LANDU, ULERTU ETA IKASTEKO LEKUA

SORMENA PIZTU

Eredu berriko jolasgunean ekintza eta jarduera asko landuko direnez, honek gaztetxoen sormena bultzatu eta pizteko baliagarri izango da.

Espazio berrian, landaredia ezagutu (botanika), urarekin jolastu (ekologia + hidraulika), txabolak eraiki lekuko baliabideekin (arkitektura/eraikuntza), esperimentuak egin (zientzia) eta gorputza eta burua aktibatuko dira (dantza, abestu, magia... arte eszenikoak).

Honek guztiak sormenarekiko irrika piztu beharko luke eta honek etorkizun hobeago baten abiapuntu izan daiteke.

-SORMENAREN BULTZATZAILE

- TXABOLAK ERAIKI LEKUKO BALIABIDEEKIN (Arkitektura)
- URAREKIN JOLASTU (Hidraulika)
- LANDAREDIA EZAGUTU (Botanika)
- GORPUTZ HEZKUNTZA (Arte eszenikoak, Dantza, Kantua, Magia ...)
- ESPERIMENTUAK EGIN (Zientzia)
-

EREDU BERRIAREN EKARPENAK
JARDUERA ANITZEN BULTZATZAILE (Espazio aniztasuna jarduera anitzen bultzatzaile)

- SORTU
- BILDU
- PARTEKATU
- IKASI
- AURKITU
- BUSTI
- LOKAZTU
- EZKUTATU
- IRAULI
- ETZAN
- ABESTU
- DANTZATU
- IRAKURRI
- EGON
- ……

02.4 JOLASGUNE BERRITZAILEA GAUZATUZ

JOLASGUNEAREN DISEINUA – AURREKARIAK

Aurreko azalpenetan garbi gelditu da jarraian azalduko den diseinuaren oinarrian dauden atal ezberdinak: Espazio ez hierarkizatua, berdea, leuna, sormena pizteko lagunduko duena, eta aniztasuna eta berdintasuna bultzatuko duena.

Proposamen berritzaileak, egun, eskolako asfaltaturiko jolas eremuko heren bat osatzen du (905 m²) honi, herri lurrak diren berdegune maldatsua gehituko zaio (1.850 m²).

Udalak LUR Paisajistak S.L.-ri, Aurreproiektu hau esleitu zionean, udal arduradunen nahiak jaso eta gero, gure lehen ekarpena bi diseinu izan ziren.

Bi diseinu hauek eduki aldetik pareko dira. Aldatzen dena, diseinuaren formak dira.

Diseinu batek zirkuluak ditu oinarri eta beraz sortzen diren azalera berrien formak ez dituzte hertz zorrotik izango. Kurba eta zirkulua dira nagusi.

Beste diseinuak, zirkuluak erabili beharrean espazio ezberdinen antolamendurako laukizuzeneko geometrian oinarritzen da.

Bi aukera hauek eskutan izanik, udal ordezkari zein eskolako zuzendaritzarekin bildu ginen eta aho batez, zirkuluetan oinarritutako diseinuari aurre egitea erabaki zen.

Aurreproiektuan lanean ginela, eskolako guraso taldeari, ekimenaren berri emateko eta hauen ekarpenak jasotzeko bildu ginen.

Proiektuaren xedea azaldu zen eta guraso taldearekin izandako solasaldi emankorraren ondorioz, proiektura gehitzeko bi ekarpen baikor egin ziren: batetik jolasgunean itzalaren beharra eta bestetik tarteka mahaiak jartzea.

JOLASGUNEAREN DISEINUA – ARAZOAK BALIABIDE BIHURTU

Aurkezten den diseinua, eskolak egun duen asfaltaturiko azaleraren eren bat (905 m²) eta herri lurrak diren 1.850 m²-etan gauzatzen da. Guztira 2.755 m² ditu jolasgune berritzaileak.

1. Lehen ekintza eskolako eremua eta herri lurraren artean dagoen itxitura eraistea izango da. Guztira 30 m.l. itxitura eraitsiko dira.
2. Bigarren ekintza herri lurretan euri urarekin dagoen arazoa konpontzea izango da.

   Herri lurrak diren zelaia maldatsuaren behealdean, eskolako jolasguneko mugan, ura sortzen da. Ez da izaera iraunkorreko iturria baina emeki emeki negu eta udaberri garaian ura sortzen da. Euri jasa handien ondorioz ur etorrera nabarmen handitzen da eta arazoak sortzen ditu. Lokatza jolasgunera pasa eta bertan iraupen luzeko putzuak sortzen dira.

Jolasguneko diseinuak, lekuko arazo hau baliabide bihurtuko du eta, euri uraren irtenaldi ziurtatzeaz gain, arazo den ur putzutzeari etekina aterako dio, bai jolaserako eta baita ere natur baliabideak gehitzeko.

Ur putzuak, naiz eta uraren presentzia denboran iraunkorra ez izan, prozesu ekologiko askoren leku da.

Oñatin txantxikuak deitzen dieten igeltxo, apo eta beste anfibioen bizi leku da, sorgin erratzena, eta abar luze batena.

Balio hauek jolasgunera txertatzeko uraren etorrera aztertuko da, eta egin beharreko indusketa eta ikerketak eta gero ur etorreraren lekuan ur hartune duin bat jarriko da.

Bertan bilduko den ura, jolas baliabide berritzailea moduan proiektuari gehituko zaio. Jolasa eta naturaren ulermena ikasteko lekua izateaz gain, eremuko arazo den euri uren putzutzeari, bide emango zaio.

Arazoa baliabide bihurtzea da ongi diseinatzea eta kasu honetan jarrera etiko eta jasangarria izatea

02.5 JOLASGUNEAREN DISEINUA – DESKRIBAPENA

Urgain-Errekalde Eskolarako proposatzen den jolasgune berritzailea bi mailatan zatitzen da: eremu laua eta eremu malkarra.

Eremu lauan sortzen diren zirkulu berdeak eraikitzeko, asfaltozko zoladura forma biribila mantenduz moztu eta kenduko da. Azpian izango duen materiala, 20/25 bat zentimetrotan ere kendu eta ordezko lur beltza gehituko da. Pinu azal azaleretan prozedura berdina jarraituko da eta belar artifiziala doan zirkuluan ordea asfalto azalera mantenduko da.

Herri lurra den lur sailaren behealdean, dagoen ur sarrera, modu egokian saneamendu sarera bideratuko da eta aldi berean zonalde honetan lur maila jaitsi egingo da. Bertan harritxintxarrez osaturiko zoladura jarriko da, eremu laua izango da eta asfaltozko azaleraren kota berdina izango du.

Azalera lau hau sortzeko, ezpondaren maldaren pendiza handituko da.

Zonalde lauaren osagaiak, belar zirkuluak, pinu azal eremuak egur jolasak barne, belar luze tontorrak, urarekin jolasteko eremua eta altzairu moduan, eserleku funtzioarekin pneumatikoak, egurrezko mahaiak bobinak erabiliaz eta hartxintxar eremuan harri handiak jarriko dira.

Zonalde malkarrean sortzen diren jolaserako edukiak, tipi ezkutua pneumatikoz eginiko harmaila, bi txirrista eta hauen goialdera igotzeko pneumatikozko eskailerak, eremu malkarreko goialdera iristeko bidea, eta goialdean gazteek txabolak sortzeko oinarriak dira. Hau guztiori janzten zuhaitza ezberdinak landatuko dira.

Dena den diseinuaren edukia hobekiago ulertzeko atalez atal eduki bakoitza deskribatuko dugu.

BELARRAK

BELAR NATURALA

Belar motza izango da nagusi behealdeko eremuan. Forma zirkularretan antolatzen dira belarguneak eta hauen erabilera egokirako Apirila eta Urria artean 15 egunetik behin moztu beharko da.

Belar motzean etzan, jolastu, kirola egin... aukera zabal eta oparoak eskaintzen ditu belar motz eremuak.

BELAR ARTIFIZIALA

Gure klima euritsuan, belar naturala bustia egon daiteke denbora luzean eta honek, eremu hauen erabilera murriztu dezake.

Hau dela eta zirkulu berdeetako bat belar artifizialarekin sortuko da.

ZELAI TONTORTXOAK

Belar motza erabilerako aproposa da baina aniztasun aldetik ordea pobrea da. Zelaia batean, hau da urtean behin edo bitan belarra mozten den eremutan, bioaniztasunak nabarmen egiten du gora. Lore ezberdinak dituzten landare asko aurkituko ditugu bertan eta hauetan gorderik intsektu asko bizi dira. Iraila bukaeran, tenperatura jaitsi ala, goizeko ihintzak, modu zehatz batean irudikatzen ditu belar luzean bizi diren armiarmek sortzen dituzten sareak. Kilkerrak, erleak, pinpilinpauxak eta abar luze bat ere bertaratuko dira belar luzera

PINU AZAL EREMUAK ETA EGUR JOLASAK

Bi dira pinu azalez zolatzen diren guneak: zirkuluetako bat eta jolasguneko sarreran dagoen artearen parean gelditzen dena.

Eremu hauetan egurrez eginiko egiturak sortuko dira eta pneumatikoekin ere jolaserako baliabideak sortuko dira. Pinua azala, zoladura leun eta lehorra izateaz gain segurtasun zoladuraren bermeak betetzen ditu. Honetarako jarriko den pinu azal sakonera 25 zentimetrokoa izango da.

UR JOLASAK

Lekuan dagoen ur sortze eta putzutzea den arazoa, baliabide bihurtzeko, herri lurraren behealdean sortzen den zona lauaren erdialdera ur jolas funtzioa izango duen gunea sortzen da. Bertara, lekuan sortzen den ura bideratuko da. Ura alde egin ez dezan, ur jolasa buztinaz inpermeabilizatuko da. Sortuko den ur eremuaren sakonerak ez ditu 20-25 zentimetro baino gehiago izango eta bertan leku putzutuetan eta paduretan ohikoak diren landareak jarriko dira.

Urmaela sortu ala, honi loturik bizi diren aberetxoak bere kabuz bertaratuko dira.

Ur jolas moduan, ur mailatik baino gorago gelditzuko diren harri lauak jarriko dira eta batetik bestera salto eginez gazteek urarekin jolasteko aukera izango dute.

ALTZARIAK

Altzari moduan, asfaltozko azaleran zirkulu eta zirkulu artean, traktore pneumatikoak jarriko dira. Hauen altuera eserleku funtzioa betetzeko aproposa da eta barnealdeko hutsunean lurra gehitu ahala, usain belar ugari landatuko dira. Esertzeaz gain, landareen usaiak ezagutzeko balio dute elementu hauek.

Mahaia funtzioa betetzeko egurrezko bobina birziklatuak jarriko dira. Hauek erdian duten zuloan parasolak jarri daitezke. Udan itzala emateaz gain hauen koloreak jolasgunearen nortasuna indartzeko baliabide bihurtu daiteke.

Harritxintxar azaleran, han-hemenka, tamaina handiko harriak jarriko dira. Ekarpen estetikoaz gain, jolaserako baliabide dira, eta eserleku edo mahaiaren funtzioa beteko dute.

MARRA ZURIAK ASFALTOAN

Asfaltozko azalerak duintzeko modu bat, bertan marra zuriekin marrazki linealak egitea da.

Ez du kostu handirik eta nortasunez beteko du, marrak marrazten den lekua. Baliabide hau, Oñatin, Ur Parkean eta Baratzeko Pikua Jolasgunean aurkitzen dugu.

Ildo honi eutsiaz, eskolako jolasgune berritzailean, zirkuluen artean geldituko den asfaltozko zoruan marra zuriez osaturiko marrazkia garatzea proposatzen da.

TXIRRISTAK

Jakin arazi zaigunez, elurra egiten duen egunetan, gazteak trineo edo plastiko zati batekin herri lurra den lekuko maldatik behera botatzen dira. Etorkizuneko elurteetan, erabilera hau ere bete ahal izateko, ezpondaren erdia belar hutsarekin uzten da. Beste erdian, lekuko malda baliabide bihurtuaz, bi txirrista jartzeko proposamena egin da: bata irekia ohiko txirrista gehienen moduan eta bestea itxia eta hodi izaera duna.

Hauen gainaldera iristeko, pneumatikoz eginiko eskailerak sortuko dira.

Bi txirristen behealdean, segurtasun zoru moduan areazko eremua antolatuko da

Txirristetara iristeko eskaileren beste aldean, grada bat sortuko da. Gradaren eserlekuak bi pneumatiko kapa jartzen sortuko da. Baliabide honi esker, beheko harritxintxar eremua antzezleku bihurtzen da.

TIPI EZKUTUA

Herri lurra den malkarraren erdialdera, sasi pila batek ezkutaturik, harrizko pareta baten aztarna dagoela ikus daiteke. Ez litzateke arraro izango sasi hauek moztu ala, lekuko ur sormena bertan dagoela ikustea.

Dena den, gune honetan, indusketa eta kota jaistearekin batera egurrez eginiko tipi bat jartzeko lekua sortuko da. Tipira iristeko, eskailera funtzioa beteko duten harri handiak jarriko dira. Gune honen muga maldatsuak trinkoki landatuko dira zuhaixka eta zuhaitzekin.

Proposatzen den zuhaitza sahats negartia da. Beerantz duen gortina moduko hazkuntzak, tipia ezkutatuko du eta honek, misterioz beteriko izaera emango dio lekuan.

TXABOLAK ERAIKITZEKO OINARRIAK

Herri lurra den maldaren goialdean, egun erdi eginik dagoen bidexkaren alboetan, tarteka lurra kendu eta gune lauak sortuko dira. Atzealdea eta bi alboak bertikalki mantentzeko, eta lurra ez erortzeko, harri eta enborrekin paretak egingo dira. Zoruan harritxintxarra botako da.

Helburua, gazteek bertan beraien txabolak sortzea da. Eraikuntzarako egurra eta beste material batzuk hurbil daitezke lekura, baina txabolen eraikuntza gazteen esku geldituko da.

LANDAREDIA ZUHAITZAK

Eremu guztiak izango du izaera berdea. Hau batik bat, belar zirkuluekin lortzen da. Honen osagarri, zuhaitzak izango dira, lekua jantzi eta nortasunez betetzeko ahalmena dutenak.

Zirkuluetako bi tontorretan, itzala bermatzeko eta udazkeneko hamaikatakoa ziurtatzeko, pikondo bana landatuko dira. Jakina, pikuak udazkenean jasotzen dira.

Tipi ezkutuko maldetan, sahats negartiak landatuko dira. Misterioa gordelekua eta nortasuna gehituko diote sahatsek jolasguneari.

Maldan gora, eremuko bi alboetan fruta-arbolak nagusituko dira. Gereziak, aranak, udare eta sagarraz gaztetxoen gosea apalduko dute garaian garaiko fruitua jaten.

Herri lurraren malek, gainaldean sekuoiak landatzea proposatzen da.

Hauek, tamaina txikikoak landatu behar dira, baina denbora laburrean gorakako bidea hartuko dute eta jolasguneko ikur bihurtuko dira: Enbor luze eta handiak dituzten zuhaitza hauek, modu erraldoian osatzen dute jolasguneko nortasun berdea.

03. EXEKUZIO PROIEKTUA

Exekuzio proiektuaren lehen fasea, kontuan izanik Oñatiko udalak 2022 ko urterako Ur Gain Errekalde herri eskolako jolasgunea eraberritzeko 100.000,00 € ko diru aurreikuspena duela eta ikusirik exekuzio proiektuak bere osotasunean gauzatzeko kopuru hau gainditzen duela, jarraian aurkezten den dokumentua, exekuzio proiektuaren lehen fasea jasotzen du soilik, beti ere, 100.000,00 € ko inbertsio kopurua tope izanik.

03.1 EGUNGO EGOERA ETA ANALISIA

Proiektu hau ikastolako egungo jolas-patioaren heren batean eta egungo jolas-patioaren ondoko udal-lursail batean garatzen da.
Berriro urbanizatuko den jolas-patioaren azalera aglomeratu asfaltozko zoladuraz estalita dago eta, guztira, 892 m² hartzen ditu.
Proiektuan sartzen den udal-partzela belardiz estalita dago, patioko jolasgunearen mugakide da eta maldan iragaitean da; kota baxuena 259.37 m da, eta altuena 274,00 m. Hau da, punturik altuenetik txikienera dagoen kota-aldea 15 m da. eta 1.973 m²-ko azalera du. Jolas-patioaren egungo lursail horizontala eta udal-zelaia batuta, proiektua guztira 2.865 m²-ko azaleran garatzen da.
Joko-patioaren eta udal-jabetzako zelaiaren artean, gaur egun itxitura-hesi bat dago, 2 metroko altuerakoa, metalezkoa eta hormigoizko peto/zapata txiki bati ainguratua. Horma horren aurkako jolas-patioaren aldera, gune asfaltatuko euri-ura biltzen duten hustubideak daude. Hormigoizko kanal bat du, zelaitik datozen urak artadiaren parean dagoen hustubide nagusira eramateko eta bertan eusteko eraiki zena.

Hala ere, ikusten da hormigoizko kanala zati batean lurrezko isurketek bete dutela, eta gaur egun urak husteko funtzioa oztopatua duela.

Udal-jabetzako zelaian, goiko kotan, eta eskuineko mugan, akazia-hesiz eta elorri-alanbrez eta sarez osatutako belardi-hesi tipikoak mugatzen dute.

Ezkerreko mugan ez dago itxiturarik, baina muga harrizko hormatxoak osatzen du. Harresi horrek, lezoi gisa, ez du zalantzarik sortzen muga non dagoen.

Ezpondaren behealdean zutoin elektriko bat dago, eta goiko landaren eta udal-partzelaren arteko goiko mugan harrizko hormatxoaren trazadura azaleratzen da, 2 m inguruko kota-aldea duena.

Lurzatia belardiz estalita dago eta, sahats pare bat izan ezik, gainerakoa belarkara ugari dituen belardi batek osatzen du. Belarkara horien artean, goiko eta beheko lautadetan, ihien dentsitatea ikusten da.

Ihi horiek eskuineko ezpondan eta sahatsen ondoan ere badaude.

Ihien presentziak erakusten digu eremu horiek ura azaleratzen den hezeguneak direla. Ondoriozta daiteke azaleratze horiek akuiferoei dagozkiela; izan ere, lehorteetan ez dute urik ematen, baina euri asko egiten duen garaietan ura isurtzen da. Ur-uholde hori emari jakin batekoa ere izan daiteke, eta, ondorioz, goiko eta beheko eremuen artean, lursailaren erditik joanda, jariatze-uraren higadurak eragindako sakonune txiki bat dago.

Udal ezpondako ur etorrerak, konpondu beharreko arazoa dira.

Izan ere, beheko kotan metatutako lurrek beheko mugako hormatxoaren estradosean dagoen hormigoizko kanalaren gehiegizko ur-fluxua eteten ari dira.

03.2 DESKRIBAPEN OROKORRA

Ur Gain Errekalde ikastolako patioa birmoldatzeko lehen fasearen proiektuak, 100.000,00€ euroko muga ekonomikoa duenez, oinarrizko antolamendu-egitura sortu nahi du, aurretiazko jarduerak, lur-mugimenduak eta zoladurak formalizatuz, eta parke berriaren edukien gai guztia proiektuaren bigarren faserako uzteko muga berriak berretsiz.
Beraz, lehenik eta behin, errepidetik eta saskibaloi-zelaiaren ondoan sarbide bat prestatu behar da, eta jarraian; obren perimetro-hesi bat sortu behar da, obrek eskola-jarduera oztopa ez dezaten. Ondoren lur-mugimenduak egin behar dira zelaian, eremu asfaltatu horizontala eta maldan dagoen belardiaren arteko hesiaren zati bat kendu ondoren.
Ezpondaren beheko aldean, ilargi erdi forma duten eremu horizontal bat sortzen da, lur guztiak atereaz eta etorkizunean txirrista bat hartzeko behar den malda duen ezponda bat sortuz.
Beheko ilargi-erdi honetatik lur-erauzketa bat sortzen da, ezpondaren erdian geratzen den lur higatuaren trazari jarraituz, malda erdian beste plataforma txiki bat baieztatzeko; plataforma horretatik gorantz jarraitzen, igatutako trazaduraren lur-erauzketa, goiko kotan plataformara iritsi arte. Han ere lur-erauzketak egiten dira, horizontaleko eremua goragoko kotan handitzeko; beraz, udal-landaren eremuan hiru terraza horizontal berresten dira, bat beheragoko kotan, bat goiko kotan eta bat erdi altueran.
Terraza horiek lotuz, erdiko traza higatua indartzen da.
Aldi berean, beheko plataforma goikoarekin lotzen duen bide-trazadura bat eratzen da, ezkerreko ezpondatik iraganez.

Lehenengo fase honetako lanen helburuetako bat jariatze-uren arazoa konpontzea da. Horretarako, goiko plataforman ur-bilketa bat sortzen da, eta drainatze-sare bat sortzen da, urak lurzatiaren erditik beherantz doan hodi batera bideratzeko.
Tarteko terraza eta behekoa drainatu egiten dira drainatze-hodiak jarriz,

eta biltzeko ur guztiak hoditeria orokorrera bideratzen dira, urmael sortu berri txiki batera isurtzen dena, beheko aldean dagoen hustubide-kutxatilaren parean.

Urmaelaren helburua da ur-arazoari potentzial ekologikoa ematea. Lur-mugimenduak konfiguratu eta uraren arazoa deskribatutako drainatzearen bidez konpondu ondoren, zirkuluak konfiguratuko dira egungo patioaren eremuan, dagoen asfalto-geruza ezabatuz eta lurrak, pinu-azala eta hartxintxarra ekarriz.
Lehen fase honetan, udal-partzelaren itxituren konfigurazioa ere aurreikusten da, landaren ezkerreko eta eskuineko mugetan metalezko hesi bat jarriz eta dagoen itxitura goiko kotan utziz.

03.3 AZALERAK

Esku-hartzearen eremua 2.865 m²-koa da; horietatik, 892 m² eremu horizontal asfaltatukoa da, eta 1.973 m² udal-landakoa.
Landa eremuan sortzen diren hiru azalera horizontalek, guztira: 470 m². osatzen dute, beheko kotakoak, 230 m². kota ertainekoak 66 m². eta goiko kotakoak; 175 m².
Asfaltozko eremuan sortzen diren zirkulu multzo desberdinetatik, 127 m². belar artifizialez daude osatuta, 27 m². are zirkulua, 220 m². belar naturala eta 143 m². pinu azal txikituzko eremuak dira.

03.4 ERAIKUNTZA TEKNIKAK

AURRE EGINKIZUNAK

Aldez aurreko jarduerei dagokienez, lehenik eta behin, asfaltatutako eremuan dauden altzariak kenduko dira. paperontziak eta bankuak hain zuzen.

Zuhaitza ere (*Fraxinus excelsior*) kendu egingo da lurzatirako ibilgailu-sarbidea formalizatuko den eremuan.

Aldi berean, kendu egiten dira hesiak, bai etorkizuneko sarbidean, bai eremu asfaltatuaren eta ezpondaren arteko mugan. Guztira, 35 ml zenbatzen dira. Desmuntatu beharreko itxierakoa.

ERAISTE LANAK

Eraispen-lanen helburua da hormigoizko hormatxoa kentzea, landaren eta asfaltatutako eremuaren artean geratzen den hesia duena. Guztira, 35 metro lineal zenbatzen dira. Bestalde, asfaltatutako azaleraren zati bat eraitsi behar da pinu azala eta belarra duten zirkuluak konfiguratzeko. Beraz, 370 m². asfaltozko azalera, 15 cm. tako bataz besteko lodieran, kendu egitn dira.

LUR MUGIMENDUAK

Egin beharreko lur-mugimenduak honako hauetan oinarritzen dira: landa-eremuaren behealdean ilargierdi formako plataforma horizontal bat formalizatzea, urmaelaren oinarria sortzea, zelaiaren erdi parean plataforma sortzea, zelaiaren goiko kotan plataforma sortzea, eta landa-eremuarekin bat ez datorren eta hiru plataformak lotzen dituen higatutako marra handitzea.

Mugitu beharreko lurrak 1.137 m² dira, eta 852 m² horietatik Urrutxu (Herri lurrak) deritzan eremura garraiatuko dira, eta 285 m² obran utziko dira, dagokion kota-planoaren arabera.

DRENAI SAREA

Landetako ur-uholdea eraginkortasunez drainatzeko, drainatze-sare orokor bat sortzen da, plataforma bakoitzean arrain-hezurraren formako drainatze-hodia jartzeko, 125 ml guztira. Drainatze-adar horiek 200 mm-ko hodietan biltzen dira. Hodi horien % 2/4ko aldaparekin, urak 200 mm-ko hodiak lotzen dituzten kutxatiletara bideratzen dira, 250 mm-ko erdiko hoditeria orokorrarekin. Guztira, 4 kutxatila-unitate (50 ml) zenbatzen dira. 200 mm-ko eta 37 ml-ko hoditeriarena. 250 mm-ko hoditeriarena.

Landetako uren bilketa orokorra, dagoen husteko kutxatilara zuzenean bideratu beharrean, azken kutxatila horren ondoan eraikitzen den urmaelera bideratzen da. Urmael horrek 50 cm inguruko sakonera du, eta, horri esker, uretako landareak garatu ahal izango dira, hezegune-ekosistema txiki bat sortuz.

Urmaeletik, ur-soberakina ebakuazio-kutxatila nagusira bideratzen da.

Drainatze-sistema berria sortzeaz gain, hustubideak eta asfaltatutako azaleraren egungo drainatze-sareak garbitu eta prest jarriko dira.

AZALERA ETA PABIMENTUAK

Zoladura gisa hartxintxar, pinu-azal, soropil eta soropil artifizialezko gainazalak sartzen dira.

Landaren beheko plataforma sortu berrian, 15 cm-ko lodiera ertaina, 153 m²-ko azaleran "Miranda" duen hartxintxarra, 20 cm-ko silize-harearen lodiera duen zirkulu bat sortzen da, eta 20 cm-ko lodiera duten pinu-azalerako bi gainazal, 158 m²-ko azalera dutenak.

LOREZAINTZA

Lehen fase honetan, lur-erauzketak eta plataforma sortu berriak ereitea eta jolas-patioan geratzen diren lurrezko zirkuluen azalera ereitea baino ez dira aurreikusten; guztira, 1.982 m² zenbatu dira.

ALTZARIAK

Altzari gisa, lehen fase honetan, obraren hasieran kendutako bankuak birkokatzeaz gain, udal-landaren ezkerreko eta eskuineko bi mugak konfiguratuko dira. Jarri beharreko itxitura maia metalikozkoa da, 2 m-ko altuera eta 135 ml-ko batura duena. Hesiak.

Jolas-patioaren egungo itxituratik kendutako hesia, patiora zuzenean sartzea ahalbidetzen duena, obrak amaitu ondoren birkokatu egingo da, eta, bigarren fasean, ate iraunkor bat sortuko da.

04. AURREKONTUA

RESUMEN DE PRESUPUESTO

UrGain Eskola

CAPITULO	RESUMEN	EUROS	%
C01	AURRE EGINKIZUNAK	2.915,10	4,19
C02	ERAISTE LANAK	4.759,50	6,83
C03	LUR MUGIMENDUAK	14.147,10	20,31
C04	DRENAI SAREA	11.838,50	17,00
C05	AZALERA ETA PABIMENTUAK	17.130,84	24,60
C06	LANDAKETAK	4.565,80	6,56
C07	ALTZARIAK	6.443,00	9,25
C08	HONDAKINEN KUDEAKETA	5.062,41	7,27
C09	OSASUN ETA SEGURTASUN PLANA	2.782,00	3,99
	TOTAL EJECUCIÓN MATERIAL	69.644,25	
	13,00% Gastos generales	9.053,75	
	6,00% Beneficio industrial	4.178,66	
	SUMA DE G.G. y B.I.	13.232,41	
	21,00% I.V.A.	17.404,10	
	TOTAL PRESUPUESTO CONTRATA	100.280,76	
	TOTAL PRESUPUESTO GENERAL	100.280,76	

Asciende el presupuesto general a la expresada cantidad de CIEN MIL DOSCIENTOS OCHENTA EUROS con SETENTA Y SEIS CÉNTIMOS

OÑATI, a 2022/12/19.

El promotor

La dirección facultativa

RESUMEN DE PARTIDAS ORDENADAS POR CAPÍTULOS (Pres)

UrGain Eskola

CÓDIGO		RESUMEN		MEDICIÓN	PRECIO	IMPORTE
01		AURRE EGINKIZUNAK				
01.01	UD	DESMONTAJE DE PAPELERA	(AE001)	4,00	5,60	22,40
01.02	UD	DESMONTAJE DE BANCOS	(AE002)	3,00	7,40	22,20
01.03	ML	DESMONTAJE DE VALLADO	(AE003)	35,00	12,70	444,50
01.04	M2	DESBROCE DEL TERRENO	(AE004)	1.982,00	1,00	1.982,00
01.05	UD	TALA ARBOL PEQUEÑO	(AE005)	2,00	44,40	88,80
01.06	UD	TALA ARBOL MEDIO	(AE006)	1,00	355,20	355,20
		TOTAL CAPÍTULO 01				2.915,10
02		ERAISTE LANAK				
02.01	M2	DEMOLICION AGLOMERADO ASFALTICO	(EL001)	370,00	9,60	3.552,00
02.02	M2	DEMOLICION PETO HORMIGON VALLA	(EL002)	35,00	34,50	1.207,50
		TOTAL CAPÍTULO 02				4.759,50
03		LUR MUGIMENDUAK				
03.01	M3	EXCAVACION GENERAL	(LM001)	1.383,00	4,50	6.223,50
03.02	M3	TRANSPORTE DE TIERRAS SOBRANTES	(LM002)	852,00	9,30	7.923,60
		TOTAL CAPÍTULO 03				14.147,10
04		DRENAI SAREA				
04.01	UD	ARQUETA 40X40	(DR001)	4,00	98,50	394,00
04.02	ML	ZANJA DRENANTE 160MM	(DR002)	125,00	22,00	2.750,00
04.03	ML	COLECTOR PVC 200mm	(DR003)	50,00	32,40	1.620,00
04.04	ML	COLECTOR PVC 250 mm	(DR004)	37,00	50,90	1.883,30
04.05	M2	EPDM 1.5 mm.	(DR005)	75,00	50,00	3.750,00
04.06	PA	ACONDICIONAMIENTO DE RED GENERAL	(DR006)	1,00	1.441,20	1.441,20
		TOTAL CAPÍTULO 04				11.838,50
05		AZALERA ETA PABIMENTUAK				
05.01	M2	CESPED ARIFICIAL	(AP001)	125,00	40,50	5.062,50
05.02	M2	GRAVILLA MIRANDA e.15	(AP002)	153,00	12,80	1.958,40
05.03	M3	ARENA DE SILICE e.20	(AP003)	7,50	106,60	799,50
05.04	M3	CORTEZA DE PINO CALIBRE BASTA e.20	(AP004)	31,60	108,40	3.425,44
05.05	M3	MONTICULOS DE TIERRA alt.50 cm	(AP005)	110,00	53,50	5.885,00
		TOTAL CAPÍTULO 05				17.130,84
06		LANDAKETAK				
06.01	M2	IMPLANTACION DE CESPED	(LA001)	1.982,00	1,90	3.765,80
06.02	PA	IMPREVISTOS VARIOS ENTRADAS	(LA002)	1,00	800,00	800,00
		TOTAL CAPÍTULO 06				4.565,80
07		ALTZARIAK				
07.01	ML	VALLADO SIMPLE TORSION ALT2m	(AL001)	135,00	29,00	3.915,00
07.02	PA	PUERTA PROVISINAL DE RECOLOCACION ENTRADA CAMIONES	(AL002)	1,00	1.250,00	1.250,00
07.03	ML	VALLADO DE SEGURIDAD EN OBRA	(AL003)	71,00	18,00	1.278,00
		TOTAL CAPÍTULO 07				6.443,00
08		HONDAKINEN KUDEAKETA				
08.01	m³	ENVASES DE PAPEL - CARTON	(15 01 01)	0,50	26,75	13,38
08.02	m³	HORMIGON	(17 01 01)	3,50	19,93	69,76
08.03	m³	MEZCLAS BITUMINOSAS	(17.03.02)	74,00	40,20	2.974,80
08.04	m³	MADERA	(17 02 01)	0,73	15,68	11,45
08.05	m³	PLASTICOS	(17 02 03)	0,50	26,75	13,38
08.06	m³	TIERRAS Y PIEDRAS	(17 05 04)	27,38	19,93	545,68
08.07	m³	RESIDUOS MEZCLADOS DE CONSTRUCCIÓN	(17 09 04)	2,25	19,93	44,84
08.08	m³	HIERROS Y ACEROS	(17 04 05)	12,50	15,68	196,00
08.09	m³	GRAVAS Y ROCAS TRITURADAS	(01 04 08)	4,50	19,93	89,69
08.10	m³	RESIDUOS DE ARENAS Y ARCILLAS	(01 04 09)	1,25	19,93	24,91
08.11	ML	VALLA AUTONOMA METALICA PUNTO LIMPIO	(PGR.12)	16,00	9,54	152,64
08.12	Ud	SACA DE RESIDUOS DE 1000 L.	(PGR.13)	4,00	16,38	65,52
08.13	PA	RESIDUOS VARIOS	(PGR.14)	1,00	860,36	860,36
		TOTAL CAPÍTULO 08				5.062,41
09		OSASUN ETA SEGURTASUN PLANA				
09.01	UD	OINARRIZKO SEGURTASUN PLANA	(OS001)	1,00	2.782,00	2.782,00
		TOTAL CAPÍTULO 09				2.782,00
		TOTAL				69.644,25

05. ERAIKUNTZA EPEAK

Obra honetarako aurreikusitako eraikuntza-epea 12 astekoa da.

Definizioa	Astea											
Altzariak kendu	X											
Hesiak kendu	X											
Obra hesia jarri	X											
Landa eta asfalto azalera arteko hormigoi petoa kendu	X											
Lur mugimenduak egin		X	X	X								
Drenai sarea sortu					X	X						
Urmaela sartu							X					
Asfaltozko azalera eraitsi								X				
Zoladurak jarri									X	X		
Hesi berriak egin											X	
Altzariak jarri												X
Belarra erein												X

06. KONTRATAZIO KALIFIKAZIOAK

Obra horiek kontratatzeko beharrezkoa den enpresen kalifikazioa.

B75113449
K1 EKOPAISAIA, S.L.L.
ATT. DE K1 EKOPAISAIA, S.L.L.
CARRETERA URRESTILLA
20730 - AZPEITIA
GIPUZKOA

La Comisión de Clasificación de la Junta Asesora de Contratación Publica acordó conceder a esta empresa las siguientes clasificaciones en los grupos, subgrupos y con la categoría que a continuación se indica:

Obras. Pase a junta : 31 de agosto de 2017

GRUPO	SUBGR	CATEG	GRUPO	SUBGR	CATEG	GRUPO	SUBGR	CATEG	GRUPO	SUBGR	CATEG	GRUPO	SUBGR	CATEG
K	06	3												

Servicios. Pase a junta : 23 de noviembre de 2016

GRUPO	SUBGR	CATEG	GRUPO	SUBGR	CATEG	GRUPO	SUBGR	CATEG	GRUPO	SUBGR	CATEG	GRUPO	SUBGR	CATEG
O	06	3												

El artículo 82.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, por la que se trasponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014, dispone que, para la conservación de la clasificación, las empresas clasificadas deberán justificar anualmente el mantenimiento de la solvencia económica y financiera, debiendo aportar la correspondiente documentación actualizada en los términos establecidos reglamentariamente en el artículo 2 del Real decreto 817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público.

Vista la declaración responsable presentada en fecha 20/09/2021 por la empresa arriba citada y las cuentas anuales correspondientes al ejercicio cerrado en fecha 31/12/2020, constan entre otros los siguientes datos:

Capital social: 350.000,00 euros Patrimonio neto: 1.196.023,71 euros

Dicho importe del patrimonio neto cumple el requisito exigido en el artículo 1.1, apartado a) del Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley 30/2007, de Contratos del Sector Público y también es superior al umbral necesario para obtener las categorías en las que la empresa se encuentra clasificada como empresa contratista de Obras y Servicios.

En virtud de cuanto antecede, esta Secretaría eleva la siguiente propuesta de ACUERDO:

Considerar justificado, a los efectos de conservación de la clasificación previstos en el artículo 82.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, por la que se trasponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014, el mantenimiento de la solvencia económica y financiera de la empresa K1 EKOPAISAIA, S.L.L. al término del ejercicio contable cerrado en fecha 31/12/2020, y mantener en sus propios términos la clasificación concedida a la empresa por acuerdo de la Comisión Delegada de Clasificación de Empresas de 31 de agosto de 2017 (Obras) 23 de noviembre de 2016 (Servicios).

Lo que se notifica para su conocimiento y efectos oportunos.

Vitoria-Gasteiz, a 23 de septiembre de 2021

CONTRATACIÓN PÚBLICA EN EUSKADI / KONTRATAZIO PUBLIKOA EUSKADIN

Nahi izanez gero, J0D0Z-T32TE-94CX bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: https://euskadi.eus/lokalizatzailea

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T32TE-94CX en la sede electronica https://euskadi.eus/localizador

B75113449
K1 EKOPAISAIA, S.L.L.
ATT. DE K1 EKOPAISAIA, S.L.L.
CARRETERA URRESTILLA
20730 - AZPEITIA
GIPUZKOA

Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen Sailkapen Komisioak egindako bileran, enpresa honi sailkapen hauek ematea adostu zuen, talde eta azpitalde hauetan eta jarraian adieraziko den kategoriarekin:
Obrak. Batzarrera pasatzea : 2017(e)ko abuztuaren 31(e)an

TALDEA	AZPIT	KATEG	TALDEA	AZPIT	KATEG	TALDEA	AZPIT	KATEG	TALDEA	AZPIT	KATEG	TALDEA	AZPIT	KATEG
K	06	3												

Zerbitzuak. Batzarrera pasatzea : 2016(e)ko azaroaren 23(e)an

TALDEA	AZPIT	KATEG	TALDEA	AZPIT	KATEG	TALDEA	AZPIT	KATEG	TALDEA	AZPIT	KATEG	TALDEA	AZPIT	KATEG
O	06	3												

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 70.2 artikuluak xedatutakoaren arabera, sailkapenari eusteko, sailkatutako enpresek urtero justifikatu beharko dute kaudimen ekonomiko eta finantzarioa dutela, eta dagokion dokumentazioa eman behar dute, eguneratuta, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuak (Sektore Publikoko Kontratuen Legea hein batean garatzen duena) arauz ezarritako baldintzetan.

Ikusi dira, batetik, arestian aipatutako enpresak 2021/09/20(e)(a)n aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpena eta, bestetik, 2020/12/31(e)(a)n itxitako ekitaldiari dagozkion urteko kontuak. Besteak beste, datu hauek ageri dira:

Kapital soziala: 350.000,00 eurotan
Ondare garbia: 1.196.023,71 eurotan

Ondare garbiaren zenbateko horrek bete egiten du maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuak (Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legea hein batean garatzen duena) 1.1 artikuluan ezarritako betekizuna, eta gainditzen du, halaber, empresa Obrak eta Zerbitzuak kontratista gisa sailkatuta dagoen kategoriak lortzeko gainditu beharreko muga.

Horri guztiari jarraikiz, Idazkaritzak ERABAKI-proposamen hau egiten du:

Frogatutzat jotzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 70.2 artikuluan sailkapenari eusteari dagokionez jasotako ondorioetarako, K1 EKOPAISAIA, S.L.L. enpresak kaudimen ekonomiko eta finantzarioa zuela 2020/12/31(e)(a)n itxitako kontabilitate-ekitaldiaren amaieran, eta bere horretan mantentzea Enpresak Sailkatzeko Eskuordeko Komisioaren 2017(e)ko abuztuaren 31(e)an (Obrak) 2016(e)ko azaroaren 23(e)an (Zerbitzuak)(e)ko erabaki bidez enpresari eman zitzaion sailkapena.

Hala jakinarazten dizut, dagozkion ondorioak izan ditzan eta jakitun egon zaitezen.

Vitoria-Gasteiz, 2021(e)ko irailaren 23(e)an

CONTRATACIÓN PÚBLICA EN EUSKADI / KONTRATAZIO PUBLIKOA EUSKADIN

07. IDAZLANAREN EGILEAK

Proiektu honen idazlanaren parte hartu duten profesionalak LUR Paisajistak-eko Iñigo Segurola Arregui (arkitekto paisajista), eta Jon Muñiz Elola (arkitekto paisajista) izan dira.

- Iñigo Segurola Arregi

Paisajista (LUR Paisajistak)

- Jon Muñiz Elola (LUR Paisajistak)

Paisajista (LUR Paisajistak)



Oiartzunen, 2022 Uztailaren 4-ean



Iñigo Segurola Arregui

Oñatiko URGAIN-ERREKALDE herri eskola ikastetxearen kanpokaldeko jolasgunea eraberritzeko Exekuzio proiektua

OÑATI